

KONTROL MOZIOA

BRANDENBURGO ATEAREN INGURUKO LANAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko martxoaren 12an Gune Publikoetako aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko udalbatzarrean, legez kanpoko zaborteziak detektatzearen eta ekiditearen inguruko bi kontrol mozio onartu genituen. Oraingoan, bukatu gabeko obrek eragiten dituzten zabor eta material pilaketaren inguruan hitz egitera gatoz.

Duela egun batzuk bizilagun batek adierazi zigun duela bi urte autobus geltokia ireki zenetik materiala pilatzen joan dela Brandenburgoko Atearen atzealdean.

Bizilagun honek dionenez, zonalde hori zabortezi moduan erabiltzen ari da eta segurtasun neurriak ez dira betetzen ari; izan ere, segurtasunerako jarri duten hesia behin eta berriro erortzen da. Dirudienez, hesia lurrean egoten da, konpondu gabe, eta umeak jolastera sartzen dira obraren gunean, horrek ekartzen duen arriskuarekin.

Delegatuak batzordean adierazi zigun badakiela zonaldearen egoera ez dela egokiena, baina egin beharreko proiektua lizitazio fasean dagoela eta tramiteak luzatzen ari direla. Gure ustez, gunea txukuntzeko proiektuaren egoera administratiboak ezin du justifikatu zonaldean segurtasun neurriak ez betetzea.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Brandenburgoko Atearen inguruko obretan segurtasun neurriak bete daitezela eta hesia behar bezala jarrita egotea berma dezala.

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Brandenburgoko Atearen gunea txukuntzeko lanak bultzatzea.

Donostian, 2018ko martxoaren 16an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia